

COVID-19REN SINTOMEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Jarduteko protokolo bat ezartzen da, ikasleren batek edo BAMEko langileren batek Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak lituzkeenerako. Eskolako Covid-19ko arduradunak Prebentzio Arloko Jorge Txana eta atezainak izango dira.

Jarduteko modua honako hau izango da:

- Sintomak agertzean, sintomak dituen pertsonak edo ikaskideren batek (sintomadun pertsona ikaslea bada) bere egoeraren berri eman beharko du Eskolan, 94 424 22 42 telefonora deituz. Ikastetxea arduratuko da informazio hori Covid-19ren kudeaketaren arduradunei helarazteaz (atezainak edo prebentzio-arduraduna). Langilea izanez gero, jarraibide berak jarraituko dira, laguntzearena izan ezik.
- Abisua emandakoan, joan isolamendu-eremura (226. gela), muturrekoa jantzita une oro eta ahal dela, eskolako lankideren batekin eta/edo Covid-19ren arduradunen batekin.
- Sintomaduna eta arduraduna isolamendu-eremuan daudenean, gelako leihoak irekiko dituzte. Sintomaduna ikaslea bada, dagokion osasun-zentroarekin jarriko gara harremanetan; langilea bada, gure osasun-zaintzako mediku den Julio Ayala-rekin (telefonoa: 944 252 525; posta elektronikoa: julio.ayala@imqprevencion.es).
- Sintomak dituen pertsonak senideren bati deitu beharko dio, zer egoeratan dagoen azaltzeko, eta bila etor dakizkion eskatzeko, garraio publikoa erabili badu zentrora etortzeko.
- Une horretatik aurrera, Osasun Zentroak kudeatuko ditu egin beharreko guztiak, ikasleen kasuan edo lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuak, gure kasuan (Julio Ayalaren bitartez).
- Covid-19k eskolan duen arduradunak desinfektatuko ditu sintomadun pertsonak gelan erabilitako mahaia eta aulkia. Horrez gain, isolamendu-gela libre geratzen denean, hustu, desinfektatu eta egurastu egingo du.
- Azkenik, egiten zaizkion proben emaitzen arabera, beharrezko neurriak hartuko dira.